

Ahozkoa nola landu 3. Zikloan : 2017/10/04eko animazioa

Ebaluatu aintzin, edo ebaluaketa sobera subjektiboa izan ez dadin, behar da **ahozkoa landu**, manera antolatu batean.

Hola dira ikasleen ahozko konpetentziak garatuko, arabera konfiantza emanez. Denbora berean, erakasleek laguntza gehiago izanen dute ahozkoa ebaluatzeko momentuan.

Hitza emaiten duguia aski gure ikasleer gelan ?

Ohar zonbeit nota forman, nahas mahas:

Egoerak, adibideak eta oharrak :

- Aditz erabideak : Goizean arbelan programa idazten dugularik, ariketa ondoan osatzea aditzekin, denbora onean : *egiten dugu, egin dugu edo eginen dugu*. Ondotik goiz guzian moldatzen dira erranaldi horiek.
- Bilduma : « ikasleen arteko elgarrizketa ». Hau usu ez dugu aski balorizatzen gelan ; Nahiago dugu « ikasle/gela oso » edo « Irakasle/ikasle » harremana baliatu eta ebaluatu, erretxago baita.
- Galdezketak karrikan: auzapeza, jaun erretora, pilotaria... Ondotik, interesgarriena gelan izan da muntaketa : zer moztu, zer atxik, erranaldiak osoak ? Hizkuntza lantzeko bikaina.
- Garrantzitsua da eskolatik kanpo joaitea (egiaz edo birtual forman), galdezketak edo beste. Haurrek behar dute hizkuntza horrekin atera. Internetez izan daiteke.
- « Errezetak landu » adibidea : bilakatzen da antzerki filmatua ; horrek ere motibapen ainitz ekartzen du...
- Norentzat ari gara ?
 - Eskolako beste taldeer presentzatzea gelan egin zerbait : bikaina, erretxa baita antolatzeko eta ikasleek berek estrategiak atxemaiten baitituzte moldatzeko beren publikoari (adibidez ama eskolako haurrak...)
 - Garrantzitsua da ere adin bereko haurrekin komunikatzea (ez bakarrik eskolako ama eskolako haurrak edo burasoekin) : harreman bat internetez beste gela batekin ?
- Liburu aurkezpenetan, hauek landu daitezke :
 - Datuak (idazle, titulu, estalgi, edizio...)
 - Laburpena bat, berek prestatuak. Hobe ahoz emaiten badute, bainan notak ere ukan dezazkete.
 - Irakurketa ozen ariketak (gela osoan edo taller gisa, ordenagailu batekin audacity-rekin adibidez)
- Ebaluaketa kolektiboa (adibidez gela osoak): ahozko ebaluaketa aipatzen delarik, gehienetan erakasleak egiten du. Bainan gelan, ariketa zehatz batentzat, ikasle taldeak egin dezake, harekin aintzinetik landuak izan badira kriterioak : denborak, argitasuna, gaia, hiztegia, egiturak... Ikasleek

zuzen izaiten badakite, zorrotz bainan ez gaizto. Menturaz erretxago zonbeitentzat talde ttipietan egiten bada.

- Ixtorio kondatzea : irakurriak edo asmatuak ? Deskribatzea/kondatzea ?
- Idatziarekin lotura : baitezpadakoa da, molde desberdinetan. Ez dira arras berexten ahal. Eta laguntzen du ebaluaketa zonbeitentzat.
- Soinuak : izan daiteke ariketa bat gelarentzat emankizun ttipi baten sortzea. Holakoetan ikasleek kasu egiten dute mezuaren kalitateari, hizkuntza mailan zehaztasunari, informazioen egiaztatzeari... Bainan ere xinpleki, beste gela baten emankizun bat entzun ditalike. Entzumena eta arraformulatzea ariketa onak baitira ahozkoa lantzeko. Ohartu gira jazko ebaluaketekin, ikasleak ez zirela usatuak, erakasleaz aparte, beste pertsona batzu entzuten euskaraz hitzegiten. Urtean zehar holako egoerak behar dira garatu (haur edo heldu, euskalki desberdinak):

Adibidez, **DDECKo web-irratia** (<http://www.partageonslaparole.fr/>) aukera paregabea da emankizun ttipi zonbeit sortu edota entzuteko. Zuen emankizunak igor beatrice.bordagaray@live.fr erakasleari. Pollita litaikemanaldi guzietz (3 aste guzietz) euskarazko emankizun bat izaitea...

- ✚ Aurkeztua izan den **material** ttipia : « nor naiz » jokia (deskribapen galderak lantzeko), story cubes...

Bestalde, edozoin sekuentzia bukatzean, liburuxka bat sortzen ahal da, eta ulermen ariketa gisa joko batzurekin (quizz gisa, edo beste), urtean zehar ikasleek berriz ikus ditzazten joko forman...

- ✚ Azkenik, 1. garaieko **progresio adibide bat** proposatua izan da, **ahozkoa euskaraz CM mailan**. Huntarik abiatuz, beste garaietarako gauza bera eginen dugu lan talde forman.